

**emun**  
Euskara eta  
berrikuntza soziala



Ipurua  
Merkatu  
Plaza

# Ipurua merkatu plaza, auzoko gunea. Parte-hartze prozesua.

BIGARREN SAIO IREKIAREN AKTA (2020-03-04)

**Eibarko Udala**  
**Ipurua Merkatu Plaza**



2020ko martxoak 16

**e**

# Aurkibidea

Aurkibidea.....	1
1. Saioaren ezaugarriak.....	2
1.1. BIGARREN SAIO IREKIA.....	2
2. Kokapena.....	2
2.1. LEHEN SAIOAREN LABURPENA.....	3
3. Saioaren garapena.....	4
3.1. DEBATERAKO ETA KOKAPENERAKO GALDERAK.....	4
3.2. TALDE BAKOITZAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARIKETA.....	7
3.3. TALDEEN AURKEZPENAK.....	8
4. Hurrengo pausoak.....	12
5. Saioaren balorazioa.....	12

# 1. Saioaren ezaugarriak

## 1.1. BIGARREN SAIO IREKIA.

**Proiektua:** Eibarko Ipuruako Merkatu plaza biziberritzeko partaidetza prozesua. Bigarren saio irekia.

**Eguna:** 2020ko martxoaren 4ean, Ipuruako merkatu plazan.

**Ordutegia:** 18:00-20:00.

**Saioaren helburua:** antolaketari eta kudeaketari buruzko hausnarketa eta lehen diseinuak egitea.

**Asistentzia:** 28 pertsona (16 emakume eta 12 gizon).

Bi saioen artean, 16 dira Eibarko talde edo elkarteren bateko kide.

Emakumeak	16
Gizonak	12
<i>Guztira</i>	<b>28</b>

## 2. Kokapena

Gaurko saioarekin hasteko, lehen saio irekiaren laburpena egin da eta prozesuaren unea zein den azaldu da, gaurko saioaren helburuak azaltzearekin batera.



Lehen saioko balorazioak kontuan hartuta, ondorengo oharrak aipatu dira saioaren hasieran:

- **Hizkuntzaren tratamendua:** saioak euskaraz izango dira baina, azalpenen laburpena gazteleraz egingo da eta partaideek nahi duten hizkuntzan parte hartu ahal izango dute.
- **Iraupena:** 2 ordu t´erditik, 2 ordura laburtzeko ahalegina egingo dugu.
- **Irudien erabilera (batez ere adingabekoekin):** Saioetan argazkiak aterako dira eta gero hauek prozesuan erabili, norbaitek nahiko ez balu adierazi egin beharko luke.

## 2.1. LEHEN SAIOAREN LABURPENA

Lehen saioaren laburpena egin da.

2020ko otsailaren 5eko asistentzia datuak

**Asistentzia: 51 pertsona**


**27 emakume**

**24 gizonezko**

Elkarteak / Eragileak: 15

Eibar Eskubaloi taldea, Asociación jubilados Ipurua, EibarCreaktiba, Asociación Cultural Plano Corto, Nalua Eibarko Feministak, Arrate Kultur Elkartea, Casa Galicia, Asociación de Viudas “Altzoa”, Azataporrúa Kontsumo Elkartea, Anemona Films, J.A. Mogel Ikastola, Elkarrekin Podemos, EHBildu, PSE, Eibarko Udala

Balioak:



**Prozesu osoan zehar** zabalik izango dugun atala izango da balioena, eraikinaren jarduera markatuko duena izango delako. Hauek dira aurrekoan izendatu zirenak:

- Aniztasuna
- Auzoak indartu
- Inklusibitatea
- Publikotasuna
- Bizitzak erdigunean
- Irisgarritasuna (kultura & baliabide publikoak)
- Irabazi asmorik eza
- Berdintasuna
- Sostenible
- Elkarrekintza eta partaidetza sustatu
- Feminista

**Urdinez:** talde eragileak gehitu dituenak espektatibak aztertu ondoren:

- Belaunaldiartekotasuna
- Autonomia


**Laranja:** 2020ko martxoaren 4an gehitu direnak:

- Partaidetza sentimendua
- Erantzunkidetasuna
- Horizontala/gardena – Ez hierarkikoa

Jarduerak: lehen saioan proposatutako jarduera kopurua, multzokatuta.

JARDUERA MOTAK: 32
Emanaldiak
Ikuskizunak
Ikastaroak
Tailerrak
Bilguneak
Aisialdia; topalekuak, egongela...
Bestelakoak

PROPOSATUTAKO JARDUERAK, MULTZOKATUTA - ACTIVIDADES Y PROPUESTAS, POR GRUPOS



### Eraikina moldatzeko aukerak:

Hauek izan ziren lantaldeetan gehien errepikatu ziren ideiak:

- Erabilera anitzeko gelak
- Emanaldi ezberdinetarako guner polibalenteak
- Modulartasuna landu
- Erdiko plantako ezker pareta kendu espazioa irabazteko
- Beheko solairuan sukaldea egiteko aukera aztertu
- Tabernaren inguruan eztabaida egon da, aldekoak eta kontrakoak agertu dira.
- Goiko solairuan espazio librerako eta egoteko lekuak aurreikusi dira: liburutegia, sofak, ...

## 3. Saioaren garapena

Ondorengo lerroetan bigarren saioaren garapenaren berri emango da.

### 3.1. DEBATERAKO ETA KOKAPENERAKO GALDERAK

Saioan sartzen hasteko eta lehen eztabaidak emateko, galdera batzuk planteatu dira. Helburua izan da norbera espazioan kokatzea eta horren araberakoa izatea erantzuna. Jende asko dagoenez, ez zaie banan-banan denei galdetu bere erantzuna azaltzeko, baina aukera eman da, hala nahi izanez gero, bakoitzaren posizioa argitzeko.


GALDERAK	EMAN DIREN ERANTZUNAK
- Aurreko saioko laburpena kontuan hartuta, <b>zer nolako osasun maila (potentziala) ikusten diot egitasmo honi?</b> Kokatu zaituz espazioan zure ustearen arabera:	Taldea bitan zatitu da, batzuk erdian kokatu dira eta besteak "oso ona" aldean. Hauek dira aipatu direnetako iritzi batzuk:

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oso ona</li> <li>- Erdi-erdi</li> <li>- Oso txarra</li> </ul>	<p>-Existen limitaciones económicas y humanas</p> <p>-¿Cuánto tiempo necesitará para ponerse en marcha?</p> <p>-Zer egingo da? Zein ekintza burutuko da hemen?</p> <p>-Optimismo con reservas.</p> <p>-Arazo horiexek oztopo edo aukera bezala ikusi daitezke, ikuspegiaren arabera.</p> <p><b>Ondorioa:</b> mugak egon badaude, eta proiektua martxan egon arte hainbat hilabete pasako dira (obren lizitazioa, obrak, ...). Lehen saioan izendatu ziren ekintzen gisakoak burutuko dira (ikus lehen saioko akta) eta zailtasunak egon badauden arren, gakoa izango da zein izango den horiei emango zaien erantzuna.</p>
<p>- <b>Nolako autonomia maila izango du espazio honek?</b> Kokatu zaitetz espazioan zure ustearen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalak antolatuko du eta gu erabiltzaile izango gara</li> <li>- Guk antolatuko dugu guztia eta udalak ez du inolako zerikusirik izango</li> <li>- Gu eta udalaren artean egingo dugu</li> </ul>	<p>Inor ez da kokatu lehen taldean. Hau da, denek nahi dute mantendu autonomia maila esanguratsua. Hauek dira aipatu direnetako iritzi batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Herritarrek/auzotarrek kudeatuko dute eta →udalaren laguntza (obrarako, mantenurako).</li> <li>-Azpiegitura/baliabideak →udalaren kontu</li> <li>-Taldea sortu eta dirulaguntzak eskatu →Independencia difícil pero posible. Diru laguntzak → Ayuntamiento y otras instituciones.</li> <li>-Udalak babes legala eskaini dezake (erantzukizuna)</li> <li>-Udalak eraikina →jendeak gainerakoa</li> <li>-Pertsonak behar dira, dena antolatzeko.</li> <li>-Komunikazioa/baliabideak/agenda (udala &lt;-&gt; ipurua)</li> <li>-Etorritako jendearen inplikazioaren araberakoa</li> </ul> <p><b>Ondorioa:</b> jendea talde desberdinetan kokatu den arren, sintonia ikusi da erantzun guztien artean. Argi ikusi da</p>



antolaketarekin zerikusia duten gaiak auto-antolaketaren bidez gauzatuko direla, eta azpiegiturarekin zerikusia duten gaiak Udalarekin koordinatuko direla. Hala eta guztiz ere, oraindik ere gai asko erabakitzeke daudela ikusi da.

Hurrengo ariketa egiteko 3 zirkulu osatu dira parte-hartzaileen artean:



Erdian (proiektuaren kudeaketa taldeko kide izan nahiko luketenak)

Inguruan, zirkulua osatuz, jardueraren bat antolatzeko prest egongo direnak.

Eta inguruan, hirugarren zirkulua osatuz, jardueretan ikusle/erabiltzaile izango direnak (edo bertan egoteko).



## 3.2. TALDE BAKOITZAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARIKETA

Aurreko ariketaren azken emaitza baliatu dugu taldekatzea egiteko eta hiru talde sortu ditugu.

Kontuan hartu behar da sailkapen hau ariketa egiteko erabili dugula. Ez da behin betikoa.

### 1.- Kudeaketa taldeko kide

### 2.- Jarduera jakinak antolatu

### 3.- Erabiltzaile



Talde bakoitzari galdera sorta bat eman zaio gida modura, ondoren denbora talde bat izan dute galdera hauek erantzuteko. Lanketa hau taldean egin da eta ondoren talde guztiari aurkeztu zaio talde bakoitzaren emaitza.

Hauek izan dira talde bakoitzari jarri zaizkion galderak:

### **Erabiltzaile edo ikusle gisa parte hartzeko prest.**

Ipuruako Merkatu Plazako eraikinaren erabiltzaile, jardueren parte-hartzaile edo ikusle izango zaren aldetik, zeintzuk izan daitezke zure beharrak? Merkatu Plazaren antolaketaren kudeaketaz arduratuko den lantaldearen antolamendua.

#### GALDERAK

- Zer nolako informazioa beharko nuke eraikinaren funtzionamenduari buruz?
- Zer eskatuko nioke jardueren antolatzailerei?
- Zer eskatuko nioke kudeaketa eta koordinazio lantaldeari?
- Zer nolako harremana izan beharko luke Merkatu plazak auzoarekin?
- Besterik?



## Jarduera jakinak antolatzeko prest

Ipuruako Merkatu Plazako eraikinean jarduera jakinak antolatzeko prestutasuna duzun aldetik, zeintzuk izan daitezke zure beharrak?

### GALDERAK

- Zeintzuk dira nire beharrak jardueraren baten antolatzailer bezala?
- Zeintzuk izan daitezke jardueren antolatzailerok izan ditzakegun beharrak?
- Zer egin dezake kudeaketa eta koordinazio lantaldeak gure egitekoa errazteko?
- Zer egin dezakegu guk kudeaketa eta koordinazio lantaldearen egitekoa errazteko?
- Besterik?

## Kudeaketa taldeko kide izateko prest

Irudikatu Ipuruako Merkatu Plazaren antolaketaren kudeaketaz arduratuko den lantaldearen antolamendua.


### GALDERAK

- Nola antolatuko gara?
- Zenbat azpi-talde beharko ditugu?
- Zein funtzio izango du bakoitzak?
- Nola koordinatuko gara?
- Zer eskatuko diogu ekintza bat antolatu nahi duenari?
- Zer eskatuko diogu Udalari?
- Nola koordinatuko gara Udalarekin?
- Bestelakorik?

### 3.3. TALDEEN AURKEZPENAK

Talde bakoitzak 35 minutu inguru izan ditu galderak eztabaidatzeko eta bere lanketaren emaitza nahi duen eran gainerako taldeei aurkezteko. Galdera eta erantzunetarako tarte egon da aurkezpen bakoitzaren ondoren.

## Erabiltzaile edo ikusle gisa parte hartzeko prest.



### Ideia nagusiak

Araua eta baloreak definitu.

Eraikinaren ordutegia eta egutegia zehaztu behar dira.

Proiektuaren jarraitkortasuna bermatu behar da.

Gardentasuna bermatu da, baina baita talde eragilearen autonomia ere.

Segurtasuna eta irisgarritasuna ezinbestekoak dira.

Komunikazioa landu behar da: webgune eta e-mail bidez.

### Egindako galderak / ekarpenak / ondorioak

Hauetaz izan dira planteatu diren bestelako galderak:

Ordutegia: Egunero egongo da zabalik? Ze ordutegirekin? **Aipatu da egokiena dela dinamika bizia izatea eta ekintzak antolatu beharko direla (intentsitate desberdinarekin) ordutegi eta egun guztietarako. Adibidez, jende helduak goizean ordu libre asko ditu eta goizeko erabiltzaileak izan daitezke.**


Langileekin funtzionatuko du, edo boluntarioekin? **Bi aukerak aztertuko dira eta boluntarioen alde egin da, printzipioz, proiektuaren baloreekin bat hobekien duen eredu delako.**

Nola sartu? Giltzarekin? Nork izango du? Txartelaz / kodeaz? **Hainbat aukera aztertuko dira eta egokienaren alde egingo da, baina aurrerago.**

Denok proiektuaren parte sentitzea garrantzitsua izango da.

Garbitasuna → zibismoa. Erantzunkidetasuna.

## Jarduera jakinak antolatzeko prest



### Ideia nagusiak

Antolatzaile guztion beharrak: materialak, espazioa eta erabiltzaileak.

Talde eragileari egiten dizkiogun eskaerak:

Komunikazioa: Eibarko aldizkarian tarte bat.  
Agenda ondo antolatzearen garrantzia, kontaktuak, beste zentroekin harremanak ...

Talde eragileari laguntzeko: ekintzak ondo zehaztu + materiala, espazioa, komunikazioa, agenda.


Zein behar dauden zehaztu, ekintza sortzaile bezala beharrak zehaztu (materiala/espazioa)

### Egindako galderak / ekarpenak / ondorioak

Erabiltzaile eta ekintza behar antzekoak izan ditzakegu eta.

Ondo antolatu beharko da agenda, proiektuaren mamia izango delako.

## Kudeaketa taldeko kide izateko prest



### Idea nagusiak

Bi diagrama sortu dituzte (osagarriak):

1. Koordinazioa + azpitaldeek erreferentziako pertsonak izatea jakiteko norengana jo beharrak dauzkatenean.

#### Azpitaldeak:

- Komunikazioa:** kanpo eta barne komunikazioa...
- Kanpo harremanak** - udalarekin koordinazioa
- Ekonomia:** diru-laguntzak + diru kontuak
- Idazkaritza** (mailinga)
- **Ongizatea:** barne harremanak zaintzeko.
- **Ekintzak:** agenda antolatzeko.

2. Erreferenteak azpitaldeentzat + zeharkako gaiak (horizontalak: harremanak, udala, ekonomia).

Gero eta erreferente gehiagorekin, liberatu behar gutxiago.

### Egindako galderak / ekarpenak / ondorioak

Nola sortu zabalpena?

- Proiektua abiatuz eta zabaltzen joan.
  - Dinamika aktiboekin.
  - Informazioa hedatuz.
  - Epe luzerako perspektiba (poliki hasia / ez itotzea).
  - Ilusioa mantendu.
  - Baloreen sentsibilizazioa egitea eta aplikazio erreala.
- Bestelako gaiak ere atera dira:
- Gazteak erakarri
  - Akatsetatik ikasi, dena ez baita ondo egingo hasieratik.

**Elur bolaren metafora erabili da, poliki hasi eta bidea egin ahala handitzen doalako.**

Auzoa elkartu -> zabaldu herrian

## 4. Hurrengo pausoak



Hurrengo pausoak izango dira saio honen ondorioak talde eragilean lantzea eta hurrengo saioa prestatzea.

Hurrengo saioa **apirilaren 29an, arratsaldeko 18:00tan** izango da Ipuruako merkatuan\*.

\*Aldaketarik egongo balitz, ahalik eta aurrerapenik handienarekin jakinaraziko da.

## 5. Saioaren balorazioa

Amaitzeko, saioaren balorazioa egin dute parte-hartzaileek. Hau izan da emaitza:

										
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bilingüe (traducción simultánea)</li> <li>• Equipo muy interesado</li> <li>• Muchas ideas</li> <li>• Buena</li> <li>• Jendearen gogoia</li> <li>• Jendea motibatuta</li> <li>• Jendearen inplikazioa eta ekarpenak</li> <li>• Ideiak pintzen inplikazioa</li> <li>• Parte hartzeko erraztasuna</li> <li>• Proiektuaren parte sentitzea polita da, baina zer izango den ezin imajinatu</li> <li>• Oso ona</li> </ul>					<ul style="list-style-type: none"> <li>• Contactar con otros proyectos similares (Tabakalera, Alhondiga...)</li> <li>• Berde gaude oraindik</li> <li>• Deszentratzeko joera</li> </ul>					
<b>Orokorrean</b>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
		II		I	I			III	III	III
<b>BATAZ BESTEKO BALORAZIOA: 7.6</b>										